



Polikromiaren xehetasuna / Detalle de la policromía.



FITXA TEKNIKOA / FICHA TÉCNICA

- Gaia: Bariko San Nikolas.
Tema: San Nicolás de Bari.
- Egilea: Luis Salvador Carmonaren taldea.
Autor: Círculo de Luis Salvador Carmona.
- Data: Barrokoa. XVIII. Mendea.
Fecha: Barroco. Siglo XVIII.
- Teknika: Urre koloreko egur polikromatuzko eskultura.
Técnica: Escultura en madera dorada y policromada.
- Neurriak / Medidas: 108 x 56 x 41 cm.
- Kokapena: San Pedro eliza, Menagarai.
Ubicación: Iglesia de San Pedro, Menagaray.
- Proiektua eta ikuskatzea: Zaharberrikuntza Zerbitzua.
AFAko Euskara, Kultura eta Kirol Saila.
Proyecto y supervisión: Servicio de Restauraciones.
Departamento de Euskera, Cultura y Deportes de D.F.A.
- Zaharberritze lanak: Aldundia-Gotzaingoa bitariko batzordearen hitzarmena.
Restaurado por: Convenio Comisión Mixta
Diputacion-Obispado.
- Zaharberritzailea / Restauradora: Carolina García Maudes.
- Urtea / Año: 2007.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ONDAREAREN BERRESKURATZEA
RECUPERACIÓN DE PATRIMONIO

BARIKO SAN NIKOLAS SAN NICOLÁS DE BARI

Bariko San Nikolas

Irudi hau Iza auzoko Bariko San Nikolas basilizakoa da baina, segurtasun eta zaintza arrazoiengatik, urteko zatirik handienez Menagaraiko San Pedro elizan gorde eta erakusten da gurtua izateko. Ohienez, abenduaren 6an, San Nikolas egunean, bere ermitara bueltatzen da, bere ohoretan egindako meza eta jaietan buru izan dadin.

Barroko estiloko eskultura da eta Bariko San Nikolas gotzaina irudikatzen du, kasulla, alba eta mitraz jantzia, eskumako eskuarekin Bibliari eutsiz eta bere gainean hiru bolako piramidea daukalarik. Irudiaren naturaltasun eta errealismoa deigarriak dira, eta baita beirazko begiak eta ahoan ordezko hortzak erabiltzea ere. Zurezko irudia da, mukuilu biribilekoa. Polikromia mehea du eta bertan kasullaren motibo apaingarriak nabarmentzen dira.

KONTSERBAZIO EGOERA

Narriadura garrantzitsuenetako bat intsektu xilofagoen eraso larria da. Bere eraginez zurezko euskarria asko ahuldu zen eta bolumen galerak eragin zizkion. Zuloak oso agerikoak ziren, bai tailuaren behealdean bai San Nikolasen mitra, buru eta aurpegiaren. Era berean polikromia eta pres-takina nabarmen kendu zen, bereziki tunikan eta jantziaren mahuketan. Kentze hauek ordurako irudiaren hainbat gunetan polikromia galtzea eragin zuten. Beste ageriko narriadura bat berniz herdoilduen hondakinez, argizari hondarrez, hautsez... etab. ez osatutako geruza lodia zen. Berau urteetan zehar tailuan metatuz joan da.

Lana arretaz aztertu ondoren aitzinako esku hartze baten zeinuak aurki ditzakegu, hala nola: San Nikolasen mahuka bi eta oinetakoetako birpintura, gune zehatzetako kola zuriaren hondarrak, xilofagoek utzitako zuloak estaltzeko han eta hemen emandako argizaria...

San Nicolás de Bari

Esta imagen aunque pertenece a la ermita de San Nicolás de Iza, por motivos de seguridad y conservación, la mayor parte del año, se guarda y se expone al culto en la parroquia de San Pedro de Menagaray. Habitualmente el 6 de diciembre, festividad de San Nicolás regresa a su ermita para presidir la misa y fiesta en su honor.

Se trata de una escultura de estilo Barroco que representa al obispo San Nicolás de Bari, vestido con casulla, alba y mitra, sosteniendo con la mano derecha la Biblia y sobre esta una pirámide de tres bolas doradas. Llama la atención la naturalidad y el realismo de la imagen con el empleo de ojos de cristal y dientes postizos en la boca. La imagen realizada en madera en bulto redondo, tiene una fina policromía donde destaca la decoración de la casulla con motivos decorativos.

ESTADO DE CONSERVACIÓN

Uno de los deterioros más importantes era el grave ataque de insectos xilofagos que causaba un fuerte debilitamiento del soporte de madera y había ocasionado pérdidas volumétricas. Los orificios eran muy visibles tanto en la parte inferior de la talla como en la mitra, cabeza y cara de San Nicolás. También presentaba importantes levantamientos de policromía y preparación que afectaban sobre todo a la túnica y a las mangas del vestido. Estos levantamientos habían producido ya la pérdida de policromía en bastantes zonas de la imagen. Otro de los deterioros visibles era la gruesa capa de suciedad de barnices oxidados, restos de cera, polvo etc.... que se había acumulado en la talla a lo largo de los años.

Al estudiar detenidamente la obra nos encontramos con signos de una interven-



Zikinkeria geruzaren ezabaketa. Eliminación del estrato de suciedad.

MANTENTZE ETA ZAHARBERRITZE TRATAMENDUA:

- Prestakin eta polikromia geruzak animalia kola, presioa eta beroaren bidez finkatzea.

- Garbiketa prozesua oso geldoa eta neket-sua izan zen, bere lodiera eta erresistentziaren arabera berniz eta zikinkeriak kentzeko metodo ezberdinak erabili direlarik. Honela, kasurako, berniz eta birpinturak garbitzeko Masschelein-Kleiner-en testa erabili da eta koipeak eta bestelako zikin-keriak ezabatzeko Wolbers-en gelak erabili dira.

- Orban eta kola zuriko hondar zehatz batzuk kentzea mekanikoki soilik egin ahal izan zen, bisturi puntarekin.

- Zurezko euskarria sendotzea, mailakako proportzioetan erretxina sintetikoa emanez.

- Gune zehatzetan bolumena berreskuratzea, kasurako oinarrian edo tailuaren atzetik behealdean.

- Hutsuneak itzumatzea. Euskarria eta prestakina kendu den gunez gain, San Nikolasek aurpegiaren zituen xilofagoen zuloak ere itzumatzea, izan ere, ikuskera eragozten zuten, nabarmenegi geratuz.

- Hutsuneen leheneratze kromatikoa egiteko, metodo puntillista hautatu da, izan ere, teknika hau oso ondo integratzen da tailuaren bolumenetan.

- Azken babesa Paraloid B-72rekin.

Esku sartu eta lekualdatzean arazorik ez izateko, zurezko enbale kutxa bat egin da, indargetze eta segurtasun sistemekin.

ción antigua, como los repintes en las dos mangas y el calzado de San Nicolás, restos de cola blanca en zonas puntuales, cera aplicada aleatoriamente para tapar los agujeros dejados por los xilófagos...

TRATAMIENTO DE CONSERVACIÓN Y RESTAURACIÓN:

- Fijación de los estratos de preparación y policromía con cola animal, presión y calor.

- El proceso de limpieza fue muy lento y laborioso empleándose varios métodos para la eliminación de barnices y suciedades en función de su grosor y resistencia. Así por ejemplo para la limpieza de barnices y repintes se ha utilizado el test de Masschelein-Kleiner; y para la eliminación de grasas y otro tipo de suciedad se han empleado los geles de Wolbers.

- Algunas manchas concretas y restos de cola blanca solo pudieron ser extraídos mecánicamente a punta de bisturí.

- Consolidación del soporte de madera mediante la aplicación de una resina sintética en proporciones progresivas.

- Reconstrucción volumétrica en zonas puntuales como la base o parte inferior trasera de la talla.

- Estucado de lagunas. A parte de las zonas con pérdida de soporte y preparación, también se han estucado los orificios de xilofagos que tenía San Nicolás en la cara ya que interfería en la visión cobrando demasiado protagonismo.

- Para la reintegración cromática de las lagunas, se optó por el método puntillista, técnica que se integra muy bien en los volúmenes de la talla.

- Protección final con Paraloid B-72. Para evitar problemas a la hora de su manipulación y traslado, se ha realizado una caja de embalaje de madera con sistemas de amortiguación y seguridad.